

Valentziako Erkidegoko Uraren Behatoki Herritarra (OCACV)

Proiektu hasiberria

Laburpena

Uraren kudeaketa publikoaren aldeko apustu gisa, Xarxa Valenciana per l'Aigua Pública elkarteak Uraren Behatoki Herritarra jarri du martxan. Gardentasunean, efikazian eta kudeaketa demokratikoan oinarritutako tresna da, eta bere helburua eremu autonomikoan uraren eta saneamenduan oinarritzko eskubideak bermatzea da.

Gako-hitzak: Uraren behatoki herritarra, demokrazia parte-hartzailea, kudeaketa publikoa, gardentasuna.

Abstract

In a bid to reinforce the public management of water services, Xarxa Valenciana per l'Aigua Pública has launched the Citizens' Observatory for Water, based on transparency, efficiency, and democratic management. Its objective is ensuring fundamental rights related to water and sanitation on a regional level.

Keywords: Citizens' Observatory for Water, participatory democracy, public management, transparency



Francesc La-Roca.

Fundación Nueva Cultura del Agua /
Universitat de València

Bidaltze data: 2020-02-25

Onartze data: 2020-06-15

1992an, Dublinen, Urari eta Ingurumenari buruzko Nazioarteko Biltzarrak ur garbia eta saneamendua arrazoizko prezioan¹ izatea gizaki guztien oinarritzko eskubidea dela onartu zuenean, eredu neoliberalaren aldeko korporazio eta erakundeek, 1989ko Berlingo harresiaren erorketaren ostean hedapen betean, garaipen garrantzitsua lortu zuten. Uraren negozioak, oinarrituta batetik gizaki guztien ura izateko premian eta bestetik garapen kapitalistak berak eragindako gehiegizko esplotazio eta kutsaduraren ondorioz edateko uraren eskasian, aurrerapauso itzela eman zuten, ezarri baitzuen aurrerantzean ura eskuratzeko eskubidea gauzatzea ordainpekoa izango zela.

Hala ere, ur-hornidurak pribatizatzeak urte gutxian erresistentzia-mugimendu ugari sorrarazi zuten, ura eskuratzeko ohiko eskubideak galdu eta ordaintzera behartu zituztenen artean.

Espainiako Estatuan gestio publikoko eta gestio pribatuko ereduak batera existitzen dira XIX. mendearen amaieraz goerotik, eta, itxuraz eta salbuespenak salbu, zerbitzu onargarria bermatzen zuten, uraren fakturak nahiko zama txikia zuelako familia-gastuetan. Baina, 2008ko krisiak agerian jarri zituen txirotasun hidrikoko hainbat kasu, ur-mozketak barne, hainbat etxetan oinarritzko zerbitzuak ordaintzeko zailtasunen ondorioz. Gainera, ur-masen egoeraren azterketak, direktiba markoa ezartzeko egin beharrekoa, uren degradazio orokortua erakutsi zuen kutsaduraren (nitratoak, plagizidak) eta gehiegizko esplotazioaren ondorioz, ur-bilketak behar bezainbeste babestu gabe.

¹ <http://www.wmo.int/pages/prog/hwrrp/documents/english/icwedece.html>

Europar Batasunean funtsezkoa den eta karga sinboliko handia duen uraren sektorean korporazioak sartzeak ordura arte erresistentzia gutxi izan zuen prozesu baten arriskuez ohartarazi zuten. Krisiak agerian utzi zuten eskubide politiko eta sozialen galera bizitzaren eremu guztien pribatizazio eta merkantilizazioaren ondorioz. Gainera, agerian geratu zen, orobat, ekonomiaren finantzarizazioak eta korporazioen alde herritarren subiranotasuna galtzeak demokrazia ahuldu dutela: estatuen boterea merkatu espekulatiboetara transferitu da. Uraren inguruan, zeina bizitzaren iker unibertsala baita, gabetzearen aurrean herri-defentsarako mugimendua antolatu zen.

Nazio Batuen Erakundeak 2010ean edateko ura eta saneamendua izatea oinarritzko giza eskubidetzat hartzeak laguntza garrantzitsua eman zien mobilizazioei. Europar Batasunean, hiri-uren gestio publikoaren aldeko Right2Water² izeneko kanpainak arrakastaz estreinatu zuten Herri Ekimen Europarra mekanismo sortu berria. Komisioak ura izateko giza eskubidearen erregulazioa jaso zuen edateko uraren direktibaren berrikuspenean, baina aitzakia eta atzerapenak izan ziren eta gaur egun ere betegabe dago.

Espainiako Estatuan, egoera-aniztasun handia egonda, ura berriz udalekotzearen aldeko mugimenduak bizirik jarraitzen du, eta, arrakasta lortu du zenbait kasutan, besteak beste, Valladoliden edota Terrassan. Valentzian, egoera kritikoa da, zeren gestio pribatua nagusi baita ia erabat 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, non bi talde handik banatzen duten negozioa, elkarte publiko-pribatu egiturapean.

² <https://www.right2water.eu/>

Beste alde batetik, (ustezko) ustelkeria negozioaren parte da, eta kondenak ez dira izan espero izandakoak. Beste gauza batzuen artean, enpresa mistoetako administrazio-kontseiluak elkarrekin partekatzen dituzten hautetsien eta aktore pribatuen arteko lankidetzak eragiten duen blindajeari esker. Zenbait ekimenek, hala nola Agbar (SUEZ) izenekoak, zeinak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Agbar Fundazioaren artean lankidetzarako hitzarmen markoa sustatu nahi zuen formazioaren alorrean batera jarduteko —indarrean egon zen 2011n sinatu zenetik 2016ko urtarrilaren 1ean deseginzen arte, alderdi politiko ia ezezagun batek eskatuta—, ez dute justiziarenganako konfiantza sortzeko ekarpenik egin³.

Ura berriz udalekotzearen aldeko mugimenduari jarraipena ematearren, Right2Water ekimen europarrean aktiboki parte hartu zuten erakunde sindikal, ekologista eta herritarren erakundeek Xarxa Valenciana per l'Aigua Pública sortu zuten 2013an, estatu mailako Uraren Sare Publikoan (RAP⁴) integratuta.

Xarxaren lehen jarduerak mahai gainean jarri zuten uraren kudeaketaren inguruan eratutako sarearen opakutasuna eta uraren kudeaketaren kontrol eta ordenamenduaz arduratzen ziren instituzio publikoek, lokal zein autonomikoek, zuten informazio-gabezia sistematikoa. Egoera horrek hamarkada batzuetan praktika ustelak eta enpresa publikoen kudeaketa txarra ahalbidetu zituen. Empresa Municipal de Aguas Residuales de València (EMARSA) delakoan kudeatzaileek eginiko harrapakariak, 90 urtetik gorako kondenekin, Valentziako PPren gobernuen ustelkeria instituzionalizatuaren etapa luzea erakusten du, uraren gaiari dagokionez.

Uraren kudeaketaren inguruan herri-ekimena antolatzearen, Xarxak Valentziako Erkidegoko Uraren Behatoki Herritarren (OCACV) sorrera bultzatu zuen, zeina Valentziako Generalitatearen gobernuak asumitu zuen aurreko legegintzaldian. Esan beharra dago, ezen, Generalitatearen Klima Aldaketaren Valentziako Estrategiaren⁵ parte izan arren (72. neurria), Behatokia ez dela egitasmo amaitua, eta horregatik ezin aurkez dezakegu hemen emaitzarik.

Behatokiak autonomia-eremuko herritarrentzako tresna bat izan nahi du kudeaketa-eredu publiko, eraginkor, garden eta parte-hartzailea definitu eta ezartzeko, baldintza klimatiko berriei egokitu, zeinak ura eta saneamendua izateko oinarriko giza eskubidea bermatu behar duen ur-ekosistemen osotasuna errespetatuz eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren Helburuekin bat.

Ikuspegi eraginkor batetik, OCACVk kooperazioa bilatzen du uraren kudeaketan eskuduntzak dituzten erakunde publikoen eta herritarren artean. Zentzu horretan, Behatokia zabalik dago bere helburuak partekatzen dituzten Valentziako irabazi-asmorik gabeko eta uraren erabilera pribaturako interesekin loturirik ez duten erakunde guztientzat, balio demokratikoekiko errespetuan.

Zereginen artean honakoak aipa daitezke: urari lotutako gaitan herritarren formazioa eta kontzientziazioa sustatzea, eta erabakiak hartzeko prozesuak hobetzeko administrazioen eta herritarren artean noranzko biko komunikazioa erraztea, kudeaketa publiko eraginkor, demokratiko eta iraunkorra lortzeko asmoz.

Korporazioen jarduera harrapakarietatik bititza babestearren, beharrezkoa da prozesu demokratikoak zabaldu eta indartzea oinarriko giza eskubideen gauzatze eraginkorra bermatuko duten instituzioak sortuz, merkatuek ez bezala. OCACVk uraren hiri-politika hobetu nahi du demokrazia indartzearen bitartez.

+++

Ander Altunak itzulita

³ <http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Consejo-General-del-Poder-Judicial/Actividad-del-CGPJ/Convenios/Todos-los-convenios/Convenio-Marco-de-colaboracion-entre-el-Consejo-General-del-Poder-Judicial-y-la-Fundacion-AGBAR-para-la-realizacion-de-actuaciones-conjuntas-en-materia-de-formacion>

⁴ Red Agua Pública.

⁵ <http://www.agroambient.gva.es/documents/163279113/168560465/Estrategia+Valenciana+de+Cambio+Clim%C3%A1tico+y+Energ%C3%ADa+2030/2b5f989b-49c1-4ddf-8d72-3e09b3997a07>